



Euskal Unibertsitatearen ildoak indartzuz

UEUK EUSKARAZKO GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZAN ERREFERENTZIA IZAN NAHI DU

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) 2013/2014 ikasturterako EHU/UPVrekin elkarlanean sustatu dituen lau graduondokoak aurkeztu ditu Bilbon. UEUren ildo estrategiko nagusienetako bat goi-mailako formakuntzaren euskarazko eskaintza sustatzea da, euskal gizartearen formazio- eta hizkuntza beharrei erantzun eta Euskal Unibertsitatearen ildoak indartzeko asmoz.

Aurkezpenean Karmele Artetxek, UEUko Zuzendariak, Iñaki Gonzalez Murua, UEUko Zuzendaritzako Euskal Unibertsitatearen ildoaren arduradunak eta Peio Lozanok, UPV/EHUko irakasleak parte hartu dute.

Karmele Artetxek hartu du lehendabizi hitza: *“UEUrentzat ildo estrategikoa da goi-mailako formakuntzarena, bi arrazoiengatik: alde batetik, gizarte aurreratuek ezinbestean behar dituztelako kualifikatutako adituak eta gero eta euskaldunagoa den gizarte batek aditu euskaldunak behar dituelako. Tamalez, oraindik gutxiengo bat da euskaraz maila honetan egiten den eskaintza. Hori dela eta, egon behar du norbait traktore lanak egingo dituen esparru honen alde; sinergiak bilduko dituen eta indarrak metatuko dituen. Horixe egiten dabil UEU. Datorren ikasturtean, UPV/EHUK 36 berezko titulu eskainiko ditu guztira; horietatik 4 euskaraz izango dira (%11a), guztiak UEUK sustatutakoak”.*

Ondoren, Peio Lozanok, UPV/EHUko irakasle eta *Euskal Herriko lurraldea eta paisaia graduondoko zuzendariak* hitz egin du: *“Etengabeko heziketa edo heziketa iraunkorra izenarekin ere ezagutzen den heziketa mota honek etorkizun oparoa du. Ezaguna denez, aldaketa teknologikoen eta sozialek iraultza handia ekarri dute hezkuntzaren mundura, eta horietako bat, eta ez txikiena, etengabeko prestakuntzarena da. Gazte garaian ikastearen paradigma aldatu egin da eta hezkuntza bizi osora hedatu da. Hurrengo urteetan joera hau areagotu egingo da; masterrak, berezko tituluak, udako ikastaroak, esperientziaren gelak... geratzeko eta areagotzeko iritsi dira. Unibertsitateek honetan ere funtsezko rola dute. Lanbide-heziketarekin batera arlo honetan beharrak izugarriak dira. Gizartearen inplikazioa,*

erakundeen eta enpresen arteko lankidetzak eta inbertsio publikoak derrigorrezkoak dira funtsezko urratsak eman ahal izateko.

Master ez diren unibertsitate mailako graduondoko tituluak ez dira oso ezagunak, baina oso ezaugarri interesgarriak dituzte: unibertsitate mailakoak dira baina lanbidetik gertu daude eta esperientzia handiko profesionalak ere parte har dezakete, intentsitate eta iraupen luze samarrekoak izanda (urte bete gehienetan) lanarekin batera eraman daitezke (egunean bi-hiru bat ordu dedikatu behar da). Gainera informazioaren eta komunikazioaren teknologiei esker etxetik jarrai daitezke hein handi batean.

UEUK diseinatu dituen tituluak anitzak dira bai gaien aldetik bai lankidetzan aritu diren erakundeen kopuruari begira. Etxetik jarraitzeko moduko ikastaroak dira, baina tartekatzen diren saio presentzialek talde-dinamika eta lan praktikoa bultzatzen dute. Uste dugu ikastaro hauek arrakastatsuak izango direla eta hurrengo urteetan ikastaro berriak etorriko direla eskaintza zabal eta integratu bat osatu arte. Horretarako denon laguntza beharko da”.

Karmele Artetxek gaur aurkeztutako eskaintza hau UEUK UPV/EHUrekin sinatu duen lankidetzak-hitzarmenari esker posible izan dela aurrera ateratzea adierazi du. Horren arabera, bi erakundeek lankidetzan jardungo dute *“bereko tituluen eta graduondokoen euskarazko eskaintza areagotzen, besteak beste alor desberdinetako irakasle euskaldunak biltzeko zubi-lanak eginez”*. Artetxek lankidetzak hau unibertsitate gehiagotara zabaltzeko asmoa duela ere azpimarratu du. Horrekin batera, graduondokoen ildoak Euskal Unibertsitatearen Fundazioak ere babesten duela azaldu du.

Iñaki Gonzalez Muruak, UEUKo Zuzendaritzako Euskal Unibertsitatearen ildoaren arduradunak Fundazioaren lana eta graduondokoen ildoak nola uztartzen diren azaldu du: *“2008. urtean sortu zen Euskal Unibertsitatearen Fundazioa, gizartearen behar baten ondorioz. Bertan, une honetan, UEU, Ikastolen Elkarteak, AEK, Kontseilua, Elkar, Ipar Hegoa Fundazioa eta EKT taldea gabiltza lanean. 2009. urtean Hezkuntza proiektua diseinatu genuen eta 2010ean UEUK sustatutako graduondokoen bidea babestea erabaki genuen. Bost urte hauetan, ibilbide gorabeheratsua izan du Fundazioak, baina gure helburuetan ez dugu etsi. Hau da, Euskal Unibertsitatea sortzea dugu helburu, hots: euskal gizartearen beharretara egokitua, izaera soziala izango duena, Euskal Herria bere osotasunean hartuko duena eta euskara hizkuntza-ardatz nagusia izango duena.*

UEUK sustatzen duen graduondokoen ildoak hau aurrerapauso bat bezala ikusten dugu gure azken helburua lortzeko bidean. Nahiz eta ikasketak kurrikularrak ez izan, eta nahiz eta tituluak beste unibertsitate batek eman, dagoen behar eta hutsune bati erantzuten diolako eta Euskal Unibertsitatea martxan jarri bitartean, hauxe delako goi-mailako aditu euskaldunak formatzeko jorratu dezakegun bide ofizial bakarra oraingoz. Horregatik, beste unibertsitateekin ere harremanetan ari gara elkarlanak lortzeko.

Azkenik, aipatu nahiko nuke graduondokoen ildoarekin batera, Fundazioaren beste apustua irakaskuntza telematikoa dela. Gaur egun irakaskuntza mota hau gero eta gehiago indartzen ari da unibertsitate munduan, muga fisikoak gainditzen ditu eta etengabeko prestakuntzarako bide eraginkorra da. Euskal Unibertsitatearen ildoak lantzeko orduan, kontuan hartzeko elementua dela irizten diogu. Alor hau garatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak bere babesa erakutsi digu eta hemendik garatu daitezkeen estrategiak sustatzen ari gara. Hala ere, gure asmoak proiektu honek ahalik eta bidaide gehien batzea da, instituzioetatik hasi, unibertsitate eta gizarte osora”.

DATU PRAKTIKOAK

2013-2014 ikasturterako UEUk egiten duen eskaintza:

- ***Euskal Herriko Lurraldea eta Paisaia. BERRIA.***
- ***Euskal pentsamendu kritikoa XX-XXI. Mendeetan.***
- ***Itzulpengintza eta teknologia.***
- ***Hondakinen kudeaketa eta tratamendua.***

Ezaugarriak:

- Diziplinartekotasuna
- Gauregunekotasuna
- Praktikei garrantzi berezia, bukaerako proiektuen bitartez
- Sarearen erakusle, sektoreko enpresekin eta erakundeekin elkarlanean
- Graduatu berriak eta profesionalak elkarlanean aritzeko asmoarekin

Informazioa, izen ematea eta matrikula:

- Informazioa: www.ueu.org/ikasi/gradu-eta-graduondokoak
- Izena emateko epea: irailaren 15era arte (gutxi gora beherako data bat da, graduondoko bakoitzak bere data zehatza baitu. Ikus web gunea)

BESTE ZENBAIT DATU INTERESGARRI

Une honetan UEUk UPV/EHUko goi-mailako formazioan duen partehartzea:

- 4 Berezko Tituluen sustatzaile:
 - Euskal Herriko Lurraldea eta Paisaia (berria)
 - Euskal pentsamendu kritikoa XX-XXI. Mendeetan
 - Itzulpengintza eta teknologia
 - Hondakinen kudeaketa eta tratamendua
- Master ofizial 3ren laguntzaile
 - Euskal nazionalismoa XXI. mendean
 - Hizkuntzaren Azterketa eta Pozesamendua
 - Multimedia Komunikazioa